



BEHERAKOA/GASTROENTERITIS AKUTUA
DIARREA-GASTROENTERITIS AGUDA

Zerbitzu honetan zure seme-alaba aztertu dugu, eta sintomak ikusita, hauxe da egin diogun diagnostikoa: **BEHERAKOA/GASTROENTERITIS AKUTUA.**

ZER DA BEHERAKOA?

Beherakoa dagoenean, sarritan egiten da kaka, eta gorozkiak ohi baino bigunagoak eta ugariagoak izaten dira.

ZEIN DA ARRAZOA?

- Hauexek dira ohikoenak :
 - 1.- Digestio-hodiko infekzioak, birusek eragindakoak (adibidez, errotabirusa, batez ere neguan) edo bakteriek eragindakoak (adibidez, salmonella, udan batez ere).
 - 2.- Jaki-intoxikazioak (egoera txarrean dagoen elikagaiaren bat hartzea).
 - 3.- Umeei sarritan gertatzen zaizkien bestelako infekzio batzuek ere beherakoa sortu ahal diete: otitisa, pneumonia, gernu-infekzioa, etab.

NOLA IGARRI?

- Umeak sarritan eta ugari egiten du kaka, usain txarrekoa, kolore berdexka edo horixkarekin, likido edo oretsua, eta mukia edo odol-arrastoak izan daitezke.
- Bestelako sintomak ere sarritan agertzen dira: sabeleko mina, "erretortijoi" moduan, sukar altu samarra, goragaleak eta gorakoak.

ZER EGIN BEHAR DUZU?

- Sarritan eman behar dizkiozu likidoak umeari, eskatzen duen guztietan eta batez ere kaka ugariaren ondoren; pediarraren jarraibideak bete behar dituzu umeak egunean hartu beharreko serum kantitateari dagokionez: zenbat gehienez eta gutxienez. Beti erabili behar dituzu farmaziako serumak, horrelakoetarako prestatuak. Errehidratatzeko Soluzioak izenez ezagutzen dira, eta badaude eskuragarri horrelako prestakinak. Hauts moduan aurkezten da urarekin prestatzeko edo soluzio likidoan prestatuta. Farmazian prestatutako soluzioak edo zuk hautsak erabiliz etxean prestatuko duzunak, egilearen jarraibideen arabera, gaixotasun hau tratatzeko egokiena den gatz eta azukre-kontzentrazioa edukiko du.

Su hijo ha sido diagnosticado de **DIARREA/GASTROENTERITIS AGUDA**, por los síntomas que presenta en el momento en que ha sido valorado en este Servicio.

¿QUE ES DIARREA?

La diarrea es un aumento del número de las deposiciones, siendo éstas más blandas y voluminosas de lo habitual.

¿CUAL ES LA CAUSA?

- La causas más frecuentes son :
 - 1.- infecciones del tubo digestivo, que pueden ser víricas (ejemplo: Rotavirus, sobre todo en invierno) o bacterianas (ejemplo: Salmonela, más típica en verano)
 - 2.- intoxicaciones alimentarias (tomar algún alimento en mal estado)
 - 3.- también otras infecciones frecuentes en los niños pueden provocar diarrea como: otitis, neumonía, infección de orina etc.

¿COMO RECONOCERLA?

- El niño hace unas deposiciones abundantes y frecuentes, malolientes, de color verdoso o amarillento, líquidas o pastosas, que pueden tener moco o trazos de sangre.
- Es frecuente que aparezcan otros síntomas como: dolor abdominal, como "retortijones", fiebre más o menos alta, náuseas y vómitos.

¿QUE DEBE HACER?

- Debe ofrecer al niño líquidos con frecuencia, siempre que el niño los demande y sobre todo tras la presencia de deposiciones abundantes, siguiendo las instrucciones que el pediatra le dé sobre la cantidad máxima y mínima de suero que el niño debe tomar al día. Siempre debe utilizar sueros de farmacia preparados para utilizar en estos casos. Se llaman Soluciones de Rehidratación y existen varios preparados comerciales disponibles. Se presenta en polvo para preparar con agua o ya preparada en solución líquida. La solución líquida ya preparada de farmacia o la que usted prepare a partir del polvo en su casa, siguiendo las instrucciones del fabricante, contendrá una concentración de sales y azúcar que es la ideal para tratar esta enfermedad.



- **ERREHIDRATATZEKO SOLUZIOAK ERABILTZEKO AHOLKUAK:**
 - 1.- Gorde itzazu leku freskoan soluzio hauek (hozkaileko atean), umeak prestakina hobeto onartzeko eta kutsatzeko posibilitateak gutxitzeko.
 - 2.- Eragiozu soluzioari eman baino lehen, behar den gatz-kontzentrazioa eduki dezan beti.
 - 3.- Ez behartu umea soluzio hauek hartzera; orokorrean, umeek arazorik gabe hartzen dituzte prestakin hauek deshidratazioa dagoenean, oso nabarmena izan ez arren.
 - 4.- **EZ ERABILI ETXEKO PRESTAKINIK, ADIBIDEZ LIMONADA ALKALINOA.** Oso zaila da behar den gatz-kontzentrazioa lortzea eta, horregatik, umeen istripu askoren eragile izan da.
- Gose bada eta toleratzen badu, nahi duena jan dezake, baina gutxiagotan egingo du kaka dieta lehorgarria egiten badu: 1-3 egunetan baino ez (patata, arroza, azenarioa, oilaskoa, arraina, sagarra, platanoa, jogurta...), baina behartu gabe, ez direlako oso gose izaten.
- Umeak urtebete baino gutxiago badauka, ez eman jogurtik inoiz eman ez badiozu.
- Umeak 6 hilabete baino gutxiago badauka eta esnea baino ez badu hartzen, ez da beharrezkoa esne berezirik ematea. Bularra hartzen badu, ohiko hartualdiekin jarraitu beharko du, eta hartualdien artean errehidratatzeko seruma eskaini beharko zaio.
- Antitermikoak, 38°-ko sukarra edo gehiago badauka.
- **BAZTERTU** azukre asko daukaten likido eta elikagaiak, beherakoa handitu ahal dutelako: Coca-Cola, urtu gabeko zukuak, etab., adibidez.
- Beherakoarekin dagoen bitartean, oso garrantzitsua da pediatriak jarraipena egitea.
- **GOGORATU** infekzio batek eragindako beherakoa kutsakorra izan daitekeela, eta horregatik kontu berezia eduki beharko duzu esku, objektu eta abarren higieinarekin.

ZERI JARRI BEHAR DIOZU ARRETA?

Ondo hidratatuta dagoela ziurtatu beharko duzu, horretarako erreparatu ea txisturik eta malkorik daukan, ea txiza normal egiten duen. Ohikoa da txiza apur bat gutxiago egitea eta kontzentratuago egotea (ilunagoa), baina ez badu txizarik egiten, malkorik ez badauka, ahoa eta larruazala lehor eta begiak hondoratuta badauzka, deshidratazio-zeinuen aurrean gaude.

Egoera orokorraren alterazioa, goibeltasuna, logura, antitermikoekin txarto kontrolatutako sukar altua.

Odol gorria kakan.

Holako zerbait ikusten baduzu edo kezkatzen zaituen zerbait badago, jo ezazu zure osasun-zentrora edo larrialdietako zerbitzu batera, pediatrik zure seme-alaba ikus dezan.

- **CONSEJOS PARA LA UTILIZACION DE LAS SOLUCIONES DE REHIDRATACION:**
 - 1.- Para conseguir que el niño acepte mejor el preparado y disminuir las posibilidades de contaminación, conserve estas soluciones frescas (en la puerta de la nevera).
 - 2.- Agite la solución previamente a su administración para que contenga siempre la concentración de sales requerida.
 - 3.- No obligue al niño a tomar estas soluciones, en general, cuando existe deshidratación, aunque ésta no sea muy importante, los niños beben estos preparados sin problema.
 - 4.- **NO UTILICE PREPARADOS CASEROS COMO LA LIMONADA ALCALINA.** Es muy difícil conseguir la concentración de sales necesaria y por este motivo han sido la causa de muchos accidentes en niños.
- Si tiene hambre y lo tolera, puede comer lo que desee, pero tendrá menos deposiciones si hace una dieta "astringente", no más de 1-3 días (patata, arroz, zanahoria, pollo, pescado, manzana, plátano, yogur...) sin forzar, ya que suelen perder el apetito.
- Si el niño es menor de 1 año, no dar yogur si usted no se lo ha dado hasta ahora.
- Si su hijo tiene menos de 6 meses y sólo toma leche, no es preciso que le dé una leche especial. Si toma pecho, seguirá con sus tomas habituales, ofreciéndole suero de rehidratación entre las mismas.
- Antitérmicos si tiene fiebre de 38° o más.
- EVITAR líquidos y alimentos muy azucarados, como Coca-cola, zumos sin diluir, etc, que pueden aumentar la diarrea.
- Es muy importante el seguimiento por su pediatra mientras siga con diarrea.
- **RECUERDE** que la diarrea causada por una infección puede ser contagiosa, por lo que se debe mantener una higiene cuidadosa de manos, objetos etc.

¿QUE VIGILAR?

Debe observar que esté bien hidratado, para eso fíjese en que tenga saliva, lágrimas, que orine con normalidad. Es habitual que la orina sea algo más escasa y concentrada (más oscura), pero su ausencia, la ausencia de lágrimas, la boca y piel secas y los ojos hundidos, son signos de deshidratación.

Alteración del estado general, decaimiento, tendencia al sueño, fiebre alta mal controlada con antitérmicos.

Heces mezcladas con sangre roja.

Si observa algo de esto o cualquier otra cosa que le preocupe, deberá acudir a su Centro de Salud o a un Servicio de Urgencias para que su hijo sea visto por el pediatra.